

Usoaren logika

Koldo SAGASTI

Pasa den asteburuan bi ospakizun sakrosantu lotzen dituen zubiaz gozatu genuen, Konstituzioa eta Sortze Garbiaren Eguna. Lehenak aita asko izan omen zituen, baina birjintasunaren gorazarreko datak bakarra, Aita Santu batek asmatu baitzuen, Pio IX.k, 1854. urtean, bi mila urteko ibilbidean kasik herenegun. Nork edo nork Aita Santuaren hutsezintasunaren dogma ezarri zuen lehenik, gerora xisteratik aterako zuenari bermea emateko, orbanik gabeko sorkundearena. Aitortu behar dizuet beti kezkatu nauela ernalketaren eguna abenduaren 8an izateak eta jaiotzarena 25ean. Atera kontuak, hamazazpi eguneko haurdunaldia. Horregatik, ezinego-

nak bultzatuta, aurtten internetera jotut susmatzen nuena egiaztatzeko, alegia, hamazazpi egun direla, hain zuzen ere, uso arruntaren ernaldiaren denbora. Pio kabroi hark egutegiko edozein egun aukera zezakeen bere asmakizunari data jartzeko, baina ez, usoaren ernaldia hartu zuen erreferentziatzat ospakizuna kalkulatzeko. Benetan, jende hau ez da serioa. Hain sinesgarritasun gutxi daukate, non oraindik ulertu ezinik nabilen nola den posible XXI. mendean oraindik ere erakunde publikoak mendean dituen botere faktikoa izatea.

Gasteizen polemika piztu da aste honetan gotzaingoak ukatu egin diolako zinema ekoiztetxe bati katedral zaharreko esparrua erabiltzeko baimena. Egunotan

“Sacamantecas” filma grabatzen ari da hiriburuan, eta zenbait eszena tenplu barruan grabatzeko eskabidea egin zuten zinemagileek, baina apezpikutzak ez die utzi. Gatazka horren haritik jakin dugu erakunde publikoek 50 milioi euroko dirulaguntza eman diotela elizari eraikinaren zaharberritze lanetarako, eta finantzaketa publikoa izanik, lekuaren erabilerak ere halakoxea beharko lukeela. Baina ez, hori logikaren arabera litzateke, eta ezin zaio logika eskatu hegaztien eta pertsonen arteko harreman interespezistak dogma bilakatu dituztenei. Eskatu dakieke, akaso, dauzkaten ondare higiezinengatik dagozkien zergak ordaintzea, hasiera ona litzateke. Baina ez, logika ezin zaie eskatu. •

Lider bat behar dugula dio...

Asier AIESTARAN

Askotan pentsatu izan dut hizkuntzak eta ondhoek badutela antzekotasun bat. Izan ere, udazkenean perretxikoak kolpetik agertzen diren bezala azaleratzen dira zenbait hitz garai jakinetan. Gogoratzen dut, duela urte batzuk, ezagutzen ez nuen “erkin” hitza entzuten nola hasi nintzen egun batetik bestera behin eta berriz. Erreferentziazko idazle, kazetari edo bertsolarien batek erabiliko zuen seguru asko, besteei gustatu, eta azkar zabaldu zen erabilera. Bertsolariak aipatu ditut, uste dudalako Bertsolari Txapelketaren bat jokoan zenean iritsi zela eztanda hura, eta bertsolari bat baino gehiago entzun nituen “erkin” ointzat

hartuta kantuan. Perretxikoak bezala, hitz horietako asko agertu bezain azkar desagertzen dira gero.

Politikan ere, aholkulari eta kontsultoreen garaiotan, badira bat-batean modan jartzen diren kontzeptuak. Ez dira hitz berriak, baina susmagarria da etengabe errepikatzen hasten direnean. Sektore jakin batzuetan “askatasuna” edo “etorkizuna” izan dira bi adibide nabarmen, eta azkenaldian “lidergoa” da belarriak minberatzen hasi zaidana. Ez bera bakarrik, baina batez ere Imanol Pradales lehendakaria entzun dut azkenaldian behin eta berriz “lidergoa” aipatzen leku, arlo eta testuinguru ezin desberdinagoetan.

Ez naiz hemen hasiko lidergoez tratatu soziologiko bat idazten, ez dudalako horretarako behar den jakintzarik, baina iruditzen zait benetako lidergoak sortu egiten direla, irabazi nahiago baduzue, eta ez hainbeste eskatu, edo aldarrikatu. Agian “Berri Txarrak belau-naldikoa” naizelako izango da, baina “lidergoa” entzuten dudak bakoitzean lekunberritarren estrofatzeko hura etortzen zait burura, doinu eta guzti: «Lider bat behar dugula dio...»

Hala ere, pentsatzen jarrita, abesti horrek ia 20 urte baldin baditu, liderrei buruzko burutapenak ez dira atzo goizeko kontuak. Egia izango da artistak beti aurretik doazela. •